



## Interneten segurtasunez aritzeko 10 gako

1. Interneten, kalean bezala, **errespetuz jokatu** behar dugu. Ez dugu oihu, irain, burla eta mehatxurik egingo. Hizkuntza eta hiztegi egokia erabiliko dugu, letra larrian idatzi gabe. Letra larrian idaztea oihu egitearen parekoa da.
2. Interneten zabiltzala irain, burla ala mehatxurik jasoko bazenu **laguntza eskatu**. Gurasoei adierazi. Bai eta desatsegina den zerbait jasoz gero (argazki, artxibo...) ere.
3. **Ez ezazu gezurrik esan** (idatzi); ez mezuetan ez eta izen-emate ala erregistratzerakoan ere. Orriren batean erregistratzeko adinik ez bazenu gurasoei baimena eta laguntza eskatu. Hobe da beraiek erregistroa egitea eta beren zaintza pean aritzea, zure pribatutasuna zain dezaten.
4. **Datu pertsonalik ez eman**. Ez izenik, ez helbiderik, ez telefonorik... ez eta argazkirik ere. Izengoitiak erabili. E-mail desberdinak eduki itzazu. E-mail hauetako bat jokoetan, programak eta antzeko webetan erregistratzeko erabili. Baina lanerako eta komunikatzeko erabiltzen duzun posta ez zabaldu. Pribatutasuna gorde ezazu.
5. Ez zure daturik **ez beste inoren daturik**. Beste inoren datuak emateko (izena, helbidea, telefonoa, e-maila...) baimena eskatu behar zaio pertsona horri. Kontuz bereziki berbidaltzeko eskatzen zaigun mezuekin (kateaturiko mezuek). Konturatu gabe besteen eta gure e-maila mundu guztian zabaltzen ari gara.
6. **Argazkiak datuak dira**. Argazkirik ez zabaldu, igotzerakoan pribatutasuna mantendu. Argazki batean beste inor balego baimena eskatu behar zaio partekatu aurretik, eta aurpegia pixelatu. Argazkia pribatua bada ere, etiketatuz gero pribatutasuna galtzen du gehienetan. Ez itzazu etiketatu.
7. **Espero ez duzunik**, posta edo eta artxiborik, jasoko bazenu **inola ere ez zabaldu**. Posta eta artxibo ezezagun horiek dira birus askoren iturri. Ireki aurretik egiaztatu jatorria eta mezuaeren asmoa, zalantzarik izanez gero gurasoei laguntza eskatu.
8. **Pasahitzak isilpean** (sekretupean) **gorde**. Pasahitzak zuretzako gogora erraza eta gainontzeko pertsonentzat zaila izan behar du. Noizbehinka aldatu egin behar da. Hizki larria, txikia, zenbakia eta ikurra edukitzea aholkatzen da, **8-zaunka** adibidez. Gurasoei adierazi ahazteko beldurra bazenu. Ez eman beste inori. Eta deskuidoan beste norbaiten pasahitzik jakingo bazenu, dagokionari adierazi. Besteen pasahitzarekin aritzea delitua da.
9. Interneten eskaintzen diren **opari eta maukak ez sinistu**. Inon ez da zaldirik astoaren prezioan ematen. Dohaineko programek, web erregistroek... eta antzekoek gure datuak eskuratu nahi izaten dituzte, zuzenean eskatuz edo eta instalatzen ditugunean gure ohituren berri emango dieten informazioa bidaltzeko azpiprograma espiak instalatuz.
10. **Interneten bidez ezaguturiko ezezagunak ez dira lagunak**. Lagun arteko harremana beste egoera ezberdinetan eta denboran eraikitzen da. Gurasoengan konfidantzarik ez izateko esaten dizuna ez da zure laguna. Ez ezazu interneten proposatutako bakarkako zitarik inola ere onartu.

